



# XII. HITZA ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Zortzi finalisten artean harpidedunek hiru onenak aukeratu dituzte euren bozkekin; Egoitz Bengoetxea izan da lehena >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-10-10**

VIII. URTEA 2.096. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Asvinenea eraldatuta aurkeztuko dute azaroaren 6an. ASVINENEA

## AURPEGI BERRIAREKIN ETORRIKO DA ASVINENEA AZAROAN

**ADUNA** Bi urteko lanaren ostean, hainbat gunetan antolatu dute Arte Eszenikoen Eskola; helburuen artean bazkideak aipatu dituzte s

## Eskualdeko bi tabernetan jarri ditu bere lanak Itziar artistak

**ERAKUSKETA** Alegiako Jubilatuen tabernan eta Tolosako Lanbroan aurkitzen dira ikusgai s

## Gazteena nagusi bi leitzarren arteko finalean

**PILOTA** Oinatz Bengoetxeak 22-12 irabazi dio Barriolari s



Ertzaintzaren «probokazioa» salatu zuten Villabonan. A. IMAZ

## «Errepresioaren» aurrean zutik jartzeko deia egin dute

**VILLABONA** 'Errepresioa gelditu! Tolosaldea zutik' lelopean manifestazioa egin dute s



Berazubiko Jaietan Tortilla Txapelketa jokatu zuten. ESTI EZEIZA

## Berazubiko Jaietan urteroko lehiak badute bere lekua

**TOLOSA** Gaur txistulariak, zahagi sagardoa eta disko festa egongo dira besteren artean s

# Opor giroa Zerkausion

**Tolosa** » Azokak asteburu luzea iragarri du; jendea baino produktu aukera handiagoa izan zen, garaiari dagokion legez.

PABLO ALBERDI

Goizeko lehen orduetatik, atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen. Dirudienek, tolosar askok kanpora ateratzeko aukera hartu dute asteburu luze honetan; hori dela eta, salmentak ez dira izan joan diren asteetakoak. Ondorengo egunetan zubia egingo dute askok eta horrek erosle kopuruan eragina izan du.

Zerrenda ordea benetan ugaria izan zen. Udazkeneko barazki asko, udakoekin nahasturik, fruta kopuru eta kalitate izugarria eta dagoeneko hasita dagoen bertako perretxiko zerrenda.

Asteburu honetako euriak asko

lagunduko duelakoan, saltzaileek datorren asteke zerrendak gora egingo duela espero dute; bai barazkietan, eta baita perretxikoetan ere.



## » ATZOKO AZOKA

**BERDURA PLAZA** Merk. Gares.

### Landareak

Ziklamena	5,50	-
Ziklamen minia	3,00	-
Menta	1,50	6,00
Albaka	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Berbenak	3,00	-
Zilantroa	1,50	-

### BERTAKO PRODUKTUAK

#### Perretxikoak

Ziza horiak	18,00	-
Kuletroa	35,00	-
Mendikoa angula	20,00	-
Nikaloa	20,00	-
'Tropeta de la muerte'	20,00	-
Onddoak	20,00	-

#### Fruta

Kiwiak	3,50	-
--------	------	---

Errezil sagarra	2,00	4,00
Urria	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

### Barazkiak (sorta)

Ziazarba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Apioa	0,50	-
Porrua	1,50	3,00

### Barazkiak (Kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarruna Lekan	10,00	12,00
Rukula	12,00	-
Patata berria	1,50	2,00

### Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisoa	1,00	1,50
Eskarola kizkurtua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxuk	0,50	0,80

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

#### Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

#### Barazkiak (sorta)

Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-

#### Barazkiak (kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-

## Bioaniztasuna bi hitzetan



### » Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologoa

**E**TB1-eko albistegiaren zera esan dute: 2010a Bioaniztasunaren urtea omen dela; *Arrate irratia* piztu eta Bioaniztasuna zaindu egin behar dela entzun duzu eta hau gutxi balitz, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-n bi igandean behin tipo baten argazkia ateratzen da azpian *Bioaniztasunetik* ipintzen duela. Bioaniztasuna zopatan ere entzuten baduzu eta ez badakizu zer den, hauxe da gaurkoan irakurri behar duzun artikulu!

Hitz misteriosu honek sustraian bi hitz ditu, Bio eta Aniztasuna. Bio horrek, BIZITZA esan nahi du (ez bifidus aktiboa daukan esnekia), beraz, Bioaniztasuna, leku batean dagoen bizitza aniztasuna da. Hau da, toki batean dauden bizidun MOTAK eta beraien KOPURUA.

Tolosaldeko pinu landaketa tipiko batean milaka pinu daude baina hortik aurrera sastraka gutxi batzuk eta hortik galduta dabilen katagorriren bat. Landaketarik gabeko Tolosaldeko baso mixto natural batean berriz, haritz batzuk, gaztainondo batzuk, tartean urritzen bat, sastraka mordoa eta mota guztiak xagu, suge, intsektu, onddo, bakterio, etabar. Bistakoa

da, Bioaniztasun handiena azken honetan dagoela, baso mixtoan, eta ez pinudi landatuan.

Baina zer onura ematen die bioaniztasun honek basoei? Lehenik eta behin bistakoa da baso mixto bat politagoa dela argazkiak egiteko, pasiatzeko... pinudi bat baino. Baina hemengarrantzitsuen, bioaniztasun maila handiagoa izatean, baso mixto inguruko faktoreen eraginean aurrean (suteak, mozketak, espezie inbaditzaileak...) errazago erreperatzen dela da.

Adibide simple bat: Imaginatu sute batek soilgune bat eragin duela pinudian. Pinuak hazien bidez soilgune hau kolonizatzen hasiko dira, baina pinuen haziak ez dira hegalarri edo korrikalarriak, norbaitek garraiatu behar ditu soilguneera, normalean txori edo katagorriren batek jan eta soilgunean kaka eginez, baina bioaniztasun urria dagoenez ez daude katagorri ugari eta haziak ez dira soilguneera garraiatuak izango, honela soilgunea sastrakadi bihurtuko da (sastrakak oso kolonizatzaile onak dira), pi-

nudia jada ez da lehen bezalako izango denboraldi puska batez, gainera sastrakak lekua jan diezaioket pinuari.

Suteak baso mixtoan soilgune bat sortzen badu, inguruan zuhaitzen haziak garraiatuko dituzten mota askotako animalietxo ugari daude, honela baso mixtoak azkarago beteko du soilgunea eta lehengoak izaten jarraituko du denboragutxian.

Azken finean, baso bat bizikleta baten antzekoa da, bizikletak ehunka pieza ditu (frenuen kableak, gurpilak, katea...), basoak aldiz ehunka espezie (haritza, pagoa, kakalardoa, okila...) hauek dira basoaren «piezak». Bizikletari frenu bat kentzen badiogu, funtzionatzen, jarraitu ahal du, apur bat arriskutsuago baina ibiltzeko moduan. Eserlekua kentzen badiogu ere ezeroso xamar baina ibili ahal gara, piezak kendu ahala bizikleta honetan ibiltzea gero eta zailago eta arriskutsuago izango da eta bat-batean pieza ez hain garrantzitsu bat kentzen dugunean, adibi-

dez, torloju txiki bat... plaf! Hor goaz lurrera! Azken pieza hau ez zen garrantzitsua, baina aurretik kendu dizkiogunak kontutan hartuta eragin kritikoa izan du hau kentzeak.

Baso bateko «piezak» diren espezieekin berdina gertatzen da. Basoak espezie mota ugari ditu, bat deuseztu ezkerro «agian» ez da

ezertzatuko, bi desagertu ezkerro «agian» ezta ere; zenbat espezie deuseztu ahal ditugu baso honen funtzionamendua erabat okertu aurretik? Baso baten funtzionamendua okertzearekin esan nahi dena da, baso hau agian ez dela berriez erregeneratuko (ez digu errikerrik emango) edo agian ez du lur azaleko ura behar bezala xurgatuko (ez ditu lur biziak ekidindo).

Gaurtik aurrera Bioaniztasuna entzuten baduzu, gogoratu artikulu xume hontaz eta agian ez zaizu hain arrotza egingo, agian interesatu egingo zaigu, agian informazio gehiago jakin nahiko duzu eta agian, Bioaniztasunean aditu bihurtuko zara. Zergatik ez?

Guzti hontaz gehiago jakin nahi baduzu, bisita ezazu ondoko blog hau: <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>

Zeure kuriositatea asetzen saiatuko gara.



[HTTP://BIOANIZTASUNETIK.BLOGSOME.COM](http://bioaniztasunetik.blogspot.com)

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baseri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

### LANA

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuek deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxe garbitzailea.** Neska arduratsua lan bila dabil etxeko lanak egiteko. Interesatuek deitu 629 10 29 38 telefono zenbakira.

■ **Harrera-lanak.** Bidaniako hotel batean gauetarako harrera-lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek bidali curriculumua

[info@iriartejauregia.com](mailto:info@iriartejauregia.com) helbide elektronikora.

### SALGAI

■ **Plantetako enkofratua Ulma sistema.** Karrerak, zertzak, puntalak, postetako txapak, tablerok saltzen dira. Modu onean. Deitu 667 41 88 75 telefono zenbakira.

### BESTERIK

■ **Txakurkumeak opari.** 3 hilabeteko arratoi txakurkume emea, hilabeteko 2 arratoi txakurkume eta 3 hilabeteko 4 arratoi-ehiztari nahasketako txakurkume oparitzen ditut. Interesatuek deitu 645 70 68 21 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Asvinenea eraldatuta dator



Jende ugari elkartzten da Asvinenearen inguruan. Era guztietako ekintzak egin eta antolatzen dituzte. ASVINENEA

**Aduna** » Asvinenea Arte Eszenikoen eskola, barne lanketaren ostean, indarberrituta aurkeztuko dute azaroaren 6an.

## ENERITZ MAIZ

Duela zazpi-zortzi urte sortu zuten proiektu bat da Asvinenea. Lagun, ezagun talde bat elkartu zen, arte eszenikoen inguruan, sormen lana garatu eta lan berriak gauzatzeko.

Gehiengo Tolosa inguruko izaki, eskualdean leku bat behar eta, Adunan pabilioi bat topatu zuten. Egokitze lanak egin zituzten

eta gaur egun ere, Asvineneak bertan mantentzen du egoitza soziala.

Urte guzti hauetan izan duen helburua izaten jarraitzen du, hau da, sormena garatu eta gauza berriak sortzea. Irabazi xederik gabeko proiektua da eta arte eszenikoen laborategi bezala definitzen dute euren burua.

30-40 urte inguruko jendea elkartzten da eta gutxi batzuk badira

ere, jende profesionala badago. Adinguztietatik irekia dago.

## Proiektua sendotu nahian

Urte batzuk lanean pasa ostean, Asvineneako bazkideek, barneko lana egin dute. Belaunaldian aldatuta egon zen eta proiektua sendotzeaz gain, zer garen, nora goazen,... bezalako galderei erantzuna eman nahi izan diete. Eta kanpora ere begiratu dute.

Lehenengo prestakuntza behar da. Gero esperimentatu egin behar da eta jarraian eszenatokia eramango litzateke. Hori da Asvineneak betetzen duen papera.

Azken bi urte hauetan estruktura bat sortu dute. Eta proiektua bere osotasunean ezagutarazi nahi dute. Asvinenea ez dute ikastaro jakin batera mugatzea nahi. Beraien ustez, gehiengoarentzat Asvinenea ezezaguna da. Horregatik, jendeari zein aukera eskaintzen dituzten ezagutzea dute helburu. Sormen lana garatzea den heinean, argi dute, sormena emateko azpiegiturak behar direla. Eta ateak zabaldu egin nahi dituzte.

Azaroaren 6an, ate irekien jardunaldi bat egingo dute eta bertara hurbiltzea nahiko lukete bertatik bertara jendeak ezagutu dezan.

## » ESKOLA



■ **Prestakuntza.** Urte guztian zehar era guztietako ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak,... antolatzen dituzte. Eta haur eta helduei zuzendutako dira. Dantza mota ezberdinak, antzerkia, clown, musika,... aukera zabalago dago.

## » ESPAZIOA



## ASVINENEA ESPAZIOA

### ■ Pertsona edo taldeei irekia.


Orain artean bazkideek erabili izan dute. Hemendik aurrera ateak ireki nahi ditu. Eta pertsona nahiz talde, behar duenak erabiltzeko aukera eskainiko dute. Leku batean beharrezko dagoen edonorentzat baliagarria izango da. Ez daude gela ezberdinak, hau da, espazio handi bat dago.

## » SALA



■ **Aretoa.** Kasu honetan eszenatokiak hartzen du protagonismoa. Takila ireki eta arlo ezberdinetako jendeak erabiltzen du beraien ikuskizunetarako (antzerkia, dantza,...). Lehiaketak ere egiten dituzte.

## » GIRA-BIRA



■ **Kanpora atera.** Asvineneak, bertan egiten den lana ez du nahi soilik egoitza geratzea. Ingurura atera nahi ditu. Eta ez bakarrik beraien lanak baita ere, beste taldeenak ere. Hau da, jendarteratzeko eragile lanak egin nahi dituzte.

## «Ezagutzera eman nahi dugu eta proiektuan sinestuz bazkide berriak egitea nahiko genuke»

**AINHOA AGIRREZABALA** » Asvineneako kidea

**Kultura** » Bi urteko lanaren ostean, Asvinenea lau zati edo gune ezberdinetan antolatu dute. Ezagutzera eman nahi dute.

## E. MAIZ

Asvinenea barrutik eraldatu dute eta era berean kanporako irudi berria ere ezagutzera eman nahi dute. TOLOSALDEA ETA LEITZALDEKO HITZA-k, Ainhoa Agirrezabala bertako kidearekin hitz egin du.

**Azken bi urte hauetan barneko lana egiten aritu zarete. Zertan datza?**

Bai. Hausnarketan ostean Asvinenearen barruan estrukturatxo bat sortu dugu. Batik bat, estaldura artistikoko garatua da. Eta bere estaldura artistikoan lau zati edo lau gune ezberdin sortu dira: Asvinenea es-



E. MAIZ

kola, Asvinenea espazioa, Asvinenea gira-bira eta Asvinenea sala. Formakuntzatik hasita, adibidez, Asvinenea eskola izenarekin atera den ekimena, arte eszenikoen prestakuntza sustatzen duen alorra da. Honen barnean daude ikas-

taroak, tailerrak, hitzaldiak, urteko kurtsoak,... urtean zehar indarra ematen jarraitu nahi da.

### Berrikuntzak dira orduan?

Ez. Gauza bakoitzari izen bat jarri diogu eta era berean logo bat sortu dugu identifikatu ahal izateko. Ez

da aktibitate berri bat sortu dela, baizik eta, aktibitate bakoitzari leku bat jarri zaio, eta leku bakoitzari izen bat. Eta logoei bizi eman zaie.

### Antolatu egin duzue beraz.

Bai, antolatu egin dugu. Alor bakoitzak bere aldetik funtzionatzea nahi dugu. Orain arte, Asvinenean, elkarrekin bezala, aktibitate ezberdinak egiten ziren. Orain lau gune ezberdin sortu dira eta arduradunak eta lan taldeak sortu dira. Eta gune bakoitzari bere aldetik indarra emango zaio.

### Eta hemendik aurrera zer?

Ezagutzera eman, baina guk nahiago dugu jendea bazkide egitea eta benetan gure proiektuarekin bat egitea. Baina azkenean pertsona bakoitzak kanpoan ere bere gauzak ditu eta leku bat baino ez du behar prestaketarako. Pixkanaka pausuk ematen joango gara.

# Argazki ederrena Bengoetxearena



Txindokin ateratako argazki batekin lortu du sari nagusia. EGOITZ BENGOETXEA



Landetan ateratako argazki honekin irabazi dute bigarren saria. IBAI SARASOLA/NEREA ARREGI



Larramendi auzoko obretan ateratako argazkiak hirugarren saria eman dio. JAVI ARAMENDIA

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa** » Zortzi finalistak erabaki ondoren, harpidedunek aukeratu dituzte lehenengo hiru sariak zeinentzat diren.

#### ERREDAKZIOA

Egoitz Bengoetxea billabonatarak eskuratu du XII. Hitza Argazki Lehiaketako sari nagusia. Beraientzat da, beraz, Ea (Bizkaia) herrian dagoen Andutza landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Txindokitik ateratako ar-

gazki batekin lortu du saria Bengoetxeak. Lehiaketara argazkia bidali zuenean esaten zuenez, udan urruneko parajeetan ibili da, baina «etxeko argazki bat aukeratu dut, Txindokin ateratako hau hain zuzen».

Bigarren saria Ibai Sarasola eta

Nerea Arregirentzat izan da Landetan ateratako argazki batekin. Beraientzat izango da Getaria (Gipuzkoa) herrian dagoen Gure Ametsa landetxean bi pertsonentzako gau bateko egonaldia. Sarasola eta Arregik azaldu zutenenez, «udari agur esateko Landetan pasatu genuen azken asteburua. Edozein lekutara joanda ere eguzkia sartzen deneko mementoa bainagauza politagorik ez dago».

Javi Aramendiak eraman du hirugarren saria, hau da, Gorrotxate-

gi Gozotegiak eskaini duen saskia. Tolosako Larramendi auzoan egiten ari diren obretan atera zuen argazkia Aramendiak. «Voith-eko auzo berriaren lanetan auto bat utzi dute obregatik inguratuta ermitaren atzean. Bertatik pasatzen ari nintzela ikusi nuen autoa eta argazki irabazlea izango zela pentsatu nuen. Argazkia oso ona da. Ez dakidana da nola atera zuten autoa hortik». Aramendiak ez du irabazi Lehiaketa baina hirugarren postua lortu du.

#### Material sortaren irabazleak

Beste sari bat ere bazegoen jokoan. Lehiaketan parte hartu dutenen artean eta botoak eman dutenen artean, HITZAKo material sorta baten zozketa egin da.

Irabazleak Xabala, Gari, Zubeldia, Izadi eta Izaskun dira. Lehiaketara argazkia bidali zuten Alegiako eta Tolosako boskotea. Oporrak Shanghai, Pekin eta Thailandian pasatu zituzten eta Shanghai hiriko argazkia bidali zuten lehiaketan parte hartzeko.



# Landareak koadroetan berpizturik

**Erakusketa** » Itziar artista irundarrak lehortutako landareekin egindako koadroak jarri ditu Alegiako Jubilatuen tabernan eta Tolosako Lanbroan.

**IMANOL GARCIA**

«Egin nuen lehenbiziko erakusketa tangizon batek esan zidan: «Harri-garria da natura hilarekin hainbeste bizi azaltzea», gogoratzen du pozik Itziar artista irundarrak. Ez zuen gezurrik esan pertsona hark. Itziarren koadroek bizitasun berezia erakusten dute lehortutako landareekin eginda egon arren. Alegiako jubilatuen tabernan, azaroaren 7a arte, eta Tolosako Lanbroa tabernan, urriaren bukaera arte ikusgai eta salgai daude bere artelanak.

Irun inguruan, Txingudi badian eta zenbaitetan Bortzirietan bildu ohi ditu landareak Itziarrek. «Denetatik biltzen dut. Oraindik ikasten ari naiz. Nire kabuz urte mordoxka daramat honetan», dio. Orain urte dezente lore lehorrekin egindako erakusketa bat ikusi zuen eta ordudunik sortu zitzaion arte mota horrekiko interesa. «Asko bezala, arrosa bat jarrita hasi nintzen eta ikusi nuen lehortu ondoren koloreak aldatu egiten zirela».


Pixkanaka murgiltzen joan zen arte mota horretan eta eskulanean ondo moldatzen denez, aurrera egin zuen. «Hasieran landareak biltzen hasi nintzen eta ikusten zer gertatzen zen lehortu ondoren. Konturatu nintzenerako lore pila bat nuen. Eta pentsatu nuen zer-bait egiten hasi behar nuela bildutako guztiarekin».

Liburuak eta prentsa txiki bat erabiltzen ditu landareak lehortzeko. «Prensatzen duzunean lorearen kolorea aldatu egiten da eta ezustekoak hartzen dira», azaltzen du. «Mendian ikusten duzun kolorea gero lehortu ondoren ez du zergatik berdina izan behar. Denbora guztian ikasten ari zara». Zerbait egiteko asko bildu behar dela dio eta denetatik behar dela.

## Lorategi txikiak, paisaiak...

Koadroak barrutik ateratzen zaizkion bezala egiten dituela esaten du. Ez du krokisik egiten. «Arte mota honetan egin ohi da irudi bat, adibidez tximeleta bat, eta gero lore lehorrekin hori bete egiten da», azaltzen du. «Nik konposizioak egiten ditut, lorategi txiki moduko bat, edo paisaia bat... ateratzen dena».

Koadroak egiten hasten denean deskonekatu egiten duela azaltzen du Itziarrek. «Horrekin nago eta oso ondo pasatzen dut, gozatu egiten dut», dio. «Gero jendea dago egiten ditudan koadroak gustatzen zaizkiona». Afizio horri esker, Itziarrek bere ingurunea gehiago ezagutzen ari dela azaltzen du, mendira egiten dituen ibilaldiei esker. Bestalde, landareen munduan murgiltzeko ere balio dio. «Pixkanaka ezagutzen zoaz loreen ize-nak zeintzuk diren, landare batzuk sendabelarrak direla... mundu bat da hori».



# «Errepresioarekin amaitzeko» gakoa herri mugimenduan kokatu dute

**Villabona** » Herenegun 350 lagun inguru elkartu ziren manifestazioan; Besance sendiari elkartasuna azaldu zioten.

## ASIER IMAZ

Errepresioa, tortura eta herri aktibazioa izan ziren hizpide herenegun iluntzean Villabonako manifestazioan. Ertzainek ere bere agerrialdia egin zuten, manifestazioa gelditzera iritsi zirelarik. Gaizki ulertuak argitu ondoren, 350 lagun inguru elkartu zituen martxak bere bidea jarraitu zuen, normaltasunez. Amaierako ekitaldian, Besance familiari elkartasuna azaldu zieten.

## «Ertzaintzaren probokazioa»

Manifestazioa 20:00etan abiatu zen Villabonako plazatik. Bertan, eskualde guztiko jende ugari elkartu zen. Ibilbidearen erdian ordea, Ertzaintzaren furgoneta bat gelditu zen *Errepresioa gelditu! Tolosaldea zutik* pankarta zeramaten herritarren aurrean.

Ertzainak furgonetatik jaitsi ziren, porrak eta gomazko pilotak



Eskualdeko jende ugari elkartu zen herenegun Villabonako manifestazioan. A. IMAZ

botatzeko armak soinean zituztela. Manifestazioa gelditu eta herritarrei ibilbide okerretik joan zirela esan zieten. Hauek, aldiz, ezetz

erantzun zieten ertzainei, martxa baimentzen zuen agiria erakutsiz. Bertan, ordura arte eginiko ibilbidea agertzen zen. Hau ikusi ondoren, ertzainak furgoneta sartu eta aurrera joan ziren. Martxak bere bidea jarraitu zuen, abiapuntuan amaitu zelarik.

Ertzainen jarrera «probokatzailetzat» jo zuten manifestazioko partaideek. «Jakín bazekiten ongi gindoazela, baina jendea berotu nahi izan dute, manifestazioa gelditu eta tentsioa sortuz».

## «Ezker Abertzalearen aurka, errepresioa»

Martxaren amaieran Besance familiari elkartasuna azaldu zieten Villabonako elkartutakoek. Berezi ki Karlos eta *Ketxus* Besanceri.

*Eusko Gudariak* abestu aurretik, irakurketa politikoa egin zuten. Bertan, estatuek Ezker Abertzalearen ildo politikoa berriari emandako erantzuna azpimarratu zuten: «Duela urtebete inguru, Ezker Abertzaleak bere barne eztabaida hasi zuenetik behin eta berriz erre-

pikatu da estatuaren estrategia. Eztabaida abiatzera zihonoan, Ezker Abertzaleko kide esanguratsuak atxilotuz erantzun zuten; Altsasuko proposamenari, Gazte Independentisten aurkako operazioarekin; Zutik Euskal Herria dokumentuari abokatuaren atxilotekin eta ETA erakundearen su etenari, azken polizia operazioekin. Argi dago zein den estatuaren errezeta: Errepresioa».

Ondoren, torturaren inguruko aipamenak egin zituzten: «Esanguratsua da ziklo politiko berri bat irekitzera doan unean torturaren aurpegirik bortitzena azaldu izana Guardia Zibilarren eskutik. Argi dago bost eguneko inkomunikazioa bera bakarrik, tortura dela atxilotuarentzat eta bere familiarantzat. Baina azken hilabeteen entzun ditugun tortura testigantzek krudelkeriaren mugak gainditzen dituzte. Horregatik gure babes eta gertutasuna adierazi nahi diegu *Ketxus* eta Karlos Besanceri, baita torturatuak izan diren euskal herritar guztieiere. Aski da! Torturarik ez!».

Azkenik, herri aktibazioaren aldeko aldarria zabaldu zuten, «errepresioa geldiarazteko, torturarekin amaitzeko, dispertsioarekin bukatzeko...». «Herri mugimenduak bakarrik bermatu dezake prozesu demokratiko bateranzko bidea, eta hori da Ezker Abertzalearen apustua».

## TORTURAREN AURKA DONOSTIAN MANIFESTAZIOA

Urriko azken larunbatean, 30ean, torturaren aurkako manifestazio nazionala burutuko da Donostiako kaleetan. Villabonatik, herenegun, bertara agertzeko deialdia luzatu zuten.



Ertzaintzaren jarrera «probokatzailera» salatu zuten manifestariak. A. IMAZ

## Bengoetxea nagusitu zaió Barriolari I. Nitro Txapelketan

**Leitza** » 22-12 irabazi du Bengoetxeak leitzarren arteko derbia; maila ona erakutsi du txapeldunak eta nagusitasunez irabazi.

### ERREDAKZIOA

Garbi zegoen Leitza joango zela I. Nitro Lehiaketaren txapela, Bengoetxea VLak eta Barriolak jokatzen baitzuten. Bada, Bengoetxeak eraman du saria nagusitasu-

nez, 22-12 irabaziz Barriola herri-kideari. Lau t'erdian jokatutako txapelketa berri horretan finalerdian baino maila hobea erakutsi du Bengoetxeak. Joko onean dagoenean zaila da irabaztea Bengoetxeari.

Barriolak bere aldetik lana jarri du, baina ez du aukera handirik izan tantoak egiteko eta zorte handirik gabe ibili da aukera izan duenean. Bengoetxea beti ibili da aurretik markagailuan, launakoan izan ezik. 3-0 hasi du partida eta 8-

4, 15-9 eta 17-11 izan da aurretik. Orduan egin du hamabigarrena Barriolak, 17-12koa jarriz. Hortik aurrera Bengoetxeak egin ditu bost tantoak jarraian. Guztira sakez hiru tanto egin ditu.

Bengoetxeak atzo erakutsitako maila mantentzen badu Lau t'erdiko txapelketa ofizialean aurrera egiteko aukera handiak izango ditu. Txapelketa horretan bakotzak bere kanporaketa gainditzen badu, bi leitzarrek berriro elkar topo egingo dute frontoian.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Era ezberdinetako txapelketak nagusi Berazubiko jaietako bigarren egunean

**Tolosa** » Tortilla patata, paella eta mus lehiaketa jokatu zituzten atzo; gaur zahagi sagardoa eta disko festa izango dira.

## ERREDAKZIOA

Jaietan murgilduta daude egun hauetan Berazubiko auzotarrak. Atzo mahaiaren bueltan hasi zuten goizean jaiak. Hasteko, patata tortilla lehiaketa egin zuten. Zazpi lagunek hartu zuten parte bertan. Epaile lanetan auzoko hiru tabernetako sukaldariak aritu ziren, Ordizia, 66 eta Hernialdekoak, eta garailea izango bera izan zen, Maritxu Astiasaran. Irabazleak azaldu zuten, ohi bezala prestatu zuen tortilla, baina, agian baserriko arrautzak izango zirela sekretua, aitortu zuten. Epaileekin batera, gainontzeko auzotarrek ere izan zuten tortillak dastatzeko aukera.

Tortilla patata lehiaketaren ostean, mahaitik altxa gabe jarraitu zuten jaiarekin, paella txapelketa jokatu baitzen. Sei lehiakide aritu ziren bertan nor baino nor. Osagaiak, sukaldea eta paella ontziak hartuta agertu ziren karpara denak. Paella gozoena prestatzen jakin zutenak hala ere, Julian Kizikilla eta Joxean Peñasena. Hauek bezperan Getarian arrantzatutako muskuiluak eta Berazubiko iturriko ura erabili zuten sukaldatzeko. Beraien esanetan, horregatik irabazi zuten. Bestalde, aurreko urteetan sukaldari lanetan aritu zena falta izateak ere eragina izango



## » BERAZUBIKO JAIAK

### Urriak 10, gaur

- 09:15. Txistulariak.
- 20:15. Zahagi sagardoa.
- 23:00. Disko festa.
- 00:30. Zurrumurru digitala Puntzakan.

### Urriak 11, bihar

- 17:30. Zezentxoak zezen-plazan Peña Frascueloren partetik.

### Urriak 12, etzi

- 08:00. Meza.
- 09:15. Txistulariak.
- 14:00. Babarrun jatea.
- 17:00. Toka txapelketa herrikoia jokatu da.

zuela nabarmendu zuten. Honen ondotik bazkaria egin zuten, eta arratsaldean, mus txapelketa eta ume jolasak egin zituzten.



Bazkaldu eta gero haurrentzako jolasak izan zituzten Berazubian. E. EZEIZA


## Pilarika eguna ospatuko dute etzi meza eta herri kirol saioarekin

**Ikaztegieta** » Duela bi urte berreskuratu zuten ohitura, eta honekin jarraituz, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte.

## ERREDAKZIOA

Pilarika eguna ospatuko dute etzi Ikaztegiatan. Egunari hasiera meza nagusiarekin emango diote. Hau 11:00etan izango da izen bera daraman ermitan. Ondoren, herriko trikitilariak arduratuko dira, bazkaltzeko garaia iritsi arte, giroa alaitzeaz.

Arratsaldean emango diote festari jarraipena. Izan ere, 17:00etik aurrera herri kirolen erakustaldia izango da. Arabatik etorriko dirabi kirolari ikuskizun berezi bat eskaintzeko. Harria jasotzen, txingak eroaten, trontzan eta beste hainbat kirolekin arituko dira.



Ermitan hasiko da jaiak. HITZA



## Kortxea Doktorea bisitan etorri da

**TOLOSA** » Kortxea Doktorea Tolosara etorri zen atzo, bertako musika instrumentuak konpontzeko asmoz. Kortxea Doktoreak, fabrikako lutierrak, musika tresna nola erabiltzen diren erakutsi zien Tolosako hau-

rrei. Honez gain, dantzatzeko eta abesten ere jarri zuten bertaratu zirenak. Ekitaldian ondorioz, Filomena, Koxme eta instrumentuak jotzen dituen Kortxea jauna egon ziren. E. EZEIZA

Liburua: **25€**  
 DVDa: **15€**  
 Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:  
 943-30 43 45  
[harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra, Benidormera bidaia antolatu du Biltoki jubilatuek arteak. Izen-ematea, Txermingo egoitzan asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatuek arteak irteera antolatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen.
- **Zizurkil.** Hernandorena IX. Ipuin Lehiaketa antolatu du Udaleko Euskara Sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean. Gaia libre izango da eta erabili beharrekoko hizkuntza euskara. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 18a bitartean, egun hau barne.

### Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, 17:00etan, *Cher ami* haurrentzako filma euskaraz. 19:30ean *Izarren argia* filmaren aurrestrenaldia.
- **Villabona.** Gurea aretoan, 17:00etan, haurrentzako *Toy Story 3* filma emango dute. 19:30ean, *Salt* filma.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo, 20. 943-67 60 13. Bihar: Tolosa. Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943-65 10 40.
- **Leitza.** M. Plaza-Arrupea. Elbarren, 36. 112. Bihar: Arribe. A. Garmendia Goi-koeaxea. Kale Nagusia. 948-51 31 28. Irurtzun: M. Gastearena-J. Martirena. Amaia, 4. 948-56 42 48.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Herezegun iluntzean hasi zen Berastegiko Argazki Rally herrikoia; Kultura Batzordekoek karreteak eta CDak banatu zizkieten parte-hartzaileei. HITZA

# Argazki onenaren bila dabilta

**Berastegi** » Denbora eta Berastegiko postala dira Argazki Rallyko hamabost parte-hartzaileek islatu behar dituzten gaiak.

### ERREDAKZIOA

Gaur, bihar edo etzi, Berastegira joan, eta hainbat lagun, argazki kamara eskuan hartuta, edozer gauzari argazkia ateratzen ari dela ikusiz gero, ez harritu, ez baita harritzeko modukoa. Izan ere, herezegun iluntzean, 20:00etan hasi zen Berastegiko Argazki Rallya. Orduan jakin zituzten parte-hartzaileek argazkietan zein gai islatu beharko zituzten.

Txapelketa bi ataletan banatu dute. Alde batetik, batzuek, argazki kamara digitalarekin hartuko dute parte. Horiek sei izango dira eta denbora da paperean islatu beharko duten gaia. Sail honetarako, gai abstraktu bat hartzea erabaki dute Kultura batzordekoek. Honela, denbora hitza zerk adierazi dezakeen aukeratu beharko dute lehiakideek. Antolatzaileen esanetan, batzuentzat, agure baten zimurrak izango dira, beste batentzat, ordulariak, edo hostoen erorketa. Bakoitzak ikusi eta erabaki beharko du beraz, zer den berarentzat denbora, eta zein une, toki, irudi edo paisaiak adierazten duen ondoen, berak erakutsi nahi duena.

Kamara analogikoarekin lehiatzen ari direnek berriz, Berastegiko postala aurkitu beharko dute. Hau da, beraien herria oinarritzat duen postal bat egiteko zein den gauzarik bereizgarriena, egokiena, nahiz argiena.

Etzi iluntzean amaituko da herezegun hasitako lehiaketa. Parte-hartzaileek erabilitako karreteak utzi beharko dituzte, baita, hamabost argazkiak betetako CDak ere.

### Etzi ez da amaituko lehia guztia

Hilaren 15ean, iluntzeko zortzietan, kamara analogikoarekin parte hartzen dutenek, errebelatutako argazkietatik hiru aukeratu beharko dituzte. Digitalarekin egindute-

nek ere, aukeraketa egin beharko dute.

Lehiakideek edo parte-hartzaileek egin beharreko lana asteberu luze honetan amaitzen bada ere, gero epai-mahaiari egokituiko zaio martxan jartzea. Hauek 2010eko lehiaketako irabazleak zeintzuk diren erabakiko dute. Dena den, epaiaren berri ez dute emango Kultur Aстера arte. Honenbestez, azaroaren 14an jakingo da nor irabazten duen asteberu honetan jokatzen den Argazki Rallya.

Bestalde, ateratzen diren argazkiekin, azaroaren 14an ospatzen den Azoka Egunean bertan, erakusketak bat antolatuko da frontoi ondoko aparkaleku azpiko lokalean.

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza